



Berdinsareak ‘Adierazi Beldur Barik!’ lehiaketa jarri du abian, emakumeenganako indarkeriari aurre egiteko

- **Parte hartzeko, 16 eta 26 urte bitartean izan behar dira, eta edozein adierazpen artistikorekin (pintura, musika, zinema, poesia, eskultura, dantza eta abar) erlazionatutako lan bat aurkeztu behar da.**
- **‘Adierazi Beldur Barik!’ ekimenaren helburua indarkeria matxista salatzen duten jarrera eta proposamenak bultzatzea da, adierazpen artistikoak sustatuz; emakumei indarkeria sexista identifikatzeko erremintak erraztuz, paper aktibo bat hartzera animatuz.**
- **Lehiaketa gazteria arazo honetara gerturatzeko ekimen bat da**
- **Izena emateko epea urriaren 29ra arte egongo da zabalik, eta 1.000 euroko hiru sari emango dira dirutan.**
- **Azaroan, ‘Beldur Barik! Jaialdia’ egingo da, epaimahaiak aukeratutako lanak ikusgai jartzeko; urtero errepikatu nahi da ekimen hau**
- **Berdinsareak, Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Udal Sareak, antolatu du ekimen hau, azaroaren 25eko emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta.**

Bilbon, 2010eko irailaren 27an. Azaroaren 25ean ospatzen den emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, Berdinsareak, Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Udal Sareak, ‘Adierazi Beldur Barik!’ lehiaketa jarri du abian. Ekimenean izena emateko epea zabalik dago jada, azaroaren 29ra arte. Lehiaketak helburu bi ditu. Alde batetik, zuzenean edo zeharka indarkeria



matxista ukatzen duten adierazpen artistiko mota guztiak baloratu eta sustatzea, eta, bestetik, emakumeenganako indarkeria prebenitzea, indarkeria sexista antzemateko balio izango dieten tresnak eskainiz eta erasoen aurrean zeregin aktiboa hartzera animatuz.

Lehiaketa adierazpen artistiko mota guztietara dago zabalik: pintura, musika, zinema, poesia, eskultura, dantza, animazioa, argazkigintza, performancea, ilustrazioa, bideoa, diseinua, instalazioak, arte digitala eta abar. Parte-hartzaileen artean, hiru sari banatuko dira, bakoitza 1.000 eurokoa. Gainera, epaimahaiak zenbait proposamen aurkeztuko ditu, eta lan horiek azaroan Bilbon egingo den ‘Beldur Barik! Jaialdia’ delakoan aurkeztuko dira.

Baldintzak

‘Adierazi Beldur Barik!’ lehiaketaren lehenengo edizio honetan parte hartzeko, 16 eta 26 urte bitartean izan behar dira eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean egon behar da erroldatuta. Proposamenak modu indibidual zein kolektiboan aurkeztu daitezke –azken kasu honetan, gutxienez neska bat egon beharko da–, eta parte-hartzaile edo talde bakoitzak lan bakarra eman ahal izango du. Piezak edozein hizkuntzatan egon daitezke, baina euskarazko edo gaztelaniazko itzulpena ere erantsi beharko da.

Epaimahaiak gaien planteamenduaren originaltasuna eta estilo eta generoen aniztasuna baloratuko ditu, bai eta sexista ez den eta estereotipo maskulino eta femenino tradizionaletatik harago doan hizkera erabiltzea ere. Era berean, lehiaketatik kanpora geratuko dira edukiagatik, hizkeragatik edo mezuagatik sexu-bazterkeria sustatu dezaketen proposamenak, iraingarriak izan daitezkeenak edo inoren sentsibilitatea zauritu edota eskubideak urratu ditzaketenak.

Lanak emateko modua



EUDEL

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Lehiaketan parte hartu nahi duten pertsonak CD edo DVD batean eman beharko dute beren proposamenaren kopia bat, eta, horrekin batera, www.beldurbarik.com web orrian dagoen inskripzio orria behar bezala beteta eman beharko dute, urriaren 29a baino lehen. Hori guztia gutun-azal itxi baten barruan sartu behar da. Gutun-azalean, 'Beldur Barik! Lehiaketa' jarri behar da, eta parte-hartzailearen udalerriko Udaleko Berdintasun Sailean zein Eudelen bulegoetan eman behar da, edo, bestela, postaz bidali Eudelen bulegoetara (Zabalgune plaza 5, 48009 Bilbao).

Azaroan jakinaraziko da nortzuk diren irabazleak: erabakiaren berri irabazleei emango zaie zuzenean, eta, gainera, webgunean argitaratuko da. Zinema, kultura eta hezkuntza munduetako eta berdintasun politiken aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako borrokan ari diren pertsonak osatuko dute epaimahaia.

Sentsibilizazio kanpaina

Lehiaketa sentsibilizazio kanpaina global baten barruan dago sartuta, eta, hain zuzen ere, kanpaina horrek Euskadiko 40 udalerrri baino gehiagoren babesak dauka –bertan bizi da Euskadiko populazioaren %75 baino gehiago–. Izan ere, azken ikerketen arabera, indarkeria sexistaren biktimak diren emakumeak gero eta gazteagoak dira, eta, beraz, eurengan jarri behar da arreta. Zehazki esateko, 2009an Euskadin aurkeztu ziren salaketak %42,32 urtetik beherako emakumeek jarritakoak izan ziren.

Berdinsarea

Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeen Kontrako Biolentziaren Aurkako Euskadiko Udalen Sarea 2005. urtean sortu zen, Emakunde eta EUDEL-en arteko hitzarmen bati esker; aurtan, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailaren Genero Indarkeriaren Kontrako Zuzendaritza ere gehitu da hitzarmen horretara. 48 Udalek osatzen dute sarea, euskal populazioaren %70a ordezkatzeko dutelarik.



EUDEL

**EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS**

Berdinsarearen helburua administrazio lokalek kudeatutako berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako biolentziaren gaineko zerbitzu eta programak bultzatu, indartu, koordinatu eta ebaluatzea izango da. Hala, ekiteko eta ebaluatzeko irizpideak definituko dituzte maila guztietako ekintza publikotan erabiltzeko eta aldi berean, sarearen bitartez herri eta goi mailako entitateen artean harreman indartzeko balioko du.

Informazio guztia, hemen: www.beldurbarik.org